

Graduetako Practicumaren Araudi Orokorra

Aurkibidea

- **Gogoeta orokorrak**
- **Arau orokorrak**
- **Plazen eskaintza eta esleipena**
- **Ikasleen Ikastetxe hautaketa**
- **Baliozkotzeak**
 - Ikasgai osoa
 - Egonaldia
- **Kasu bereziak**
 - Eskaera bereziaren prozedura
 - Egonaldaren datak aldatzea
 - Egonaldia lanaldi erdiako praktiketan egitea
 - PBi practicum ikasturte beran egiteko aukera
 - Praktiketako ikastetxea aldatzea
 - Eskaera berezia egiteko **inprimakia** , 1.03 bulegoan entregatu

Dokumentua

- **Inprimakia (pdf , 81.67 KB)**
- **Egonaldiaren notaren iraupena**
- **Ebaluazioa**
- **Agenteen funtzioak**
 - Ikastetxeko koordinatzailea Ikastegiko tutorea
 - Irakale Eskolako praktiketako tutorea
 - Ikasleak

0. GOGOETA OROKORRAK

EHAA/2011n jaso bezala, praktikak Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko lankidetzaz-hitzarmenaren arabera zuzentzen dira.

Praktikak Irakasleen Eskolako Praktiketako zuzendariordetzak antolatzen eta koordinatzen ditu, beste ikastetxe batzuekin lankidetzan.

Tutoreei eta ikasleei aholkatzeko xedez, Praktiketako zuzendariordetzak berariazko informazio-dokumentuak izango ditu Practicum bakoitzerako. Bertan, ikasle eta tutoreentzako orientazio orokorrak jasoko dira; besteak beste, lortu nahi diren helburuak, lan-metodologia gomendagarrienak, garatu beharreko prestakuntza-jarduera eta -eginkizunak, ebaluazio-irizpideak, antolakuntza-alderdiak, ordutegiak, jakintza arloak/inplikaturako sailak, eta praktikak modu egokian gainditzeko beharrezko informazio guztia.

Practicumarekin lotutako edozein gertaera konpontzeko, ikasleak Praktiketako Zuzendariordearengana eta Batzordera jo beharko du.

Behin praktikak amaituta, Unibertsitateak eta Hezkuntza Sailak kasuan kasuko ziurtagiriak igorriko dizkiete ikastetxeetako tutoreei.

Praktika hauen bidez, ez dira inoiz ikastetxeetako, erakundeetako eta enpresetako irakasleen eginkizunak beteko. Praktikak egiten dituztenek eginkizun desberdinak edota osagarriak izango dituzte.

Praktika arautuak direnez, automatikoki Eskola Aseguruak estaliko ditu, eta Unibertsitateak beharrezko kudeaketak egingo ditu hala izan dadin.

Practicuma Irakasleen Unibertsitate Eskolari atxikitako enborreko irakasgaia denez, eskolak berak antolatzen eta arautzen du.

Practicumeko Zuzendariordetzaren zuzeneko arloa da, eta Akademia Antolakuntzako Batzordearen eta Practicumeko Batzordearen laguntzarekin jarduten du.

1. ARAU OROKORRAK

- Ikasleak Irakasleen Unibertsitate Eskolak zehaztutako ikastetxeren batean egingo ditu praktikak.
- Egonaldiak antolatzeko kudeaketa ugari egin behar direnez, beharrezkoa da prozesua hainbat hilabete lehenagoz hastea. Hala, ikasturte batean egin beharreko praktikak aurreko ikasturtean hasten dira programatzen.
- Ikasleak Irakasleen Unibertsitate Eskolak zehaztutako ikastetxean egingo ditu praktikak.
- Praktikek iraun artean, ikastetxeak lanaldi osoko profesionalentzako zehaztutako ordutegia beteko dute ikasleek.
- Aipatutako alderen batekin lotutako aldaketak egitea (ikastetxe-, denboraldi- edo ordutegi-aldaketak) Practicumeko Zuzendariordezari dagokio. Beraz, ikasleek zuzendariordezari egin beharko dizkiote eskari guztiak, betiere, Practicumaren araudian kasu berezietarako zehaztutako baldintza eta epeen arabera.

2. PLAZEN ESKAINTZA ETA ESLEIPENA

Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak praktikak egiteko ikastetxe eta erakundeak eskainiko ditu, urtero, modu bateratuan. Hala, titulu bakoitzak nahikoa plaza izango ditu, ikasleen espezializazio-eskariei erantzuteko.

Ikasleari plaza esleitzeko prozedura Praktiketako Batzordeak adostutako irizpideen arabera egingo da:

Ikasleak **hiru Practicum egin beharko ditu bi edo hiru ikastetxe desberdinetan**, eta baldintza hori betetzea ikaslearen erantzukizuna izango da.

Premisa horiek zehaztuta, PI eta PIIren hautaketa-irizpide bakarra irizpide akademikoa da. Hau da, ikasleak bere espedienteko notaren eta gainditutako kredietuen arabera hautatu ahalko du ikastetxea. Behin ikastetxea esleitura, ikasleak praktiken onarpen-agiria eta horiek modu egokian garatzeko eta kasuan-kasuan bere esku dituen datuak babesteko konpromisoa sinatuko ditu.

3. IKASLEEN IKASTETXE HAUTAKETA

Lehen aipatu bezala, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak praktikak egiteko ikastetxe eta erakundeak eskainiko ditu, titulu bakoitzak ikasleen espezializazio-eskariei erantzuteko nahikoa plaza izan ditzan.

Plazak esleitzeko prozesuaren aurretik, Irakasleen Eskolak praktikak egiteko ikastetxeen zerrenda argitaratuko du, ikasleek beren lehentasunak pentsa ditzaten.

Irizpide akademikoen arabera (espedientea eta gainditutako kredituak) plazak hautatzeko ordena zehaztuko da, eta ikasleek esakera egiteko egutegia argitaratuko da.

Behin prozesu hori amaituta, zerrenda bat argitaratuko da, honako datu hauekin: ikaslea, esleitutako plaza eta praktiken tutoretza egingo duen Irakasleen Eskolako tutorearen izena.

4. BALIOZKOTZEAK

Baliozkotzeak lortzeko kasuak	Irakasgai osoa		Egonaldia bakarrik
<p>practicum I</p>	<ul style="list-style-type: none"> Irakasle eskolako ikasketetan Diplomatua bada. Azkeneko hiru urteetan, gutxienez, urte erdiz lanaldi osoko arduraldian, edo urtebetez lanaldi erdiko arduraldian Haur Hezkuntzan/Lehen Hezkuntzan aritu bada. 	<ul style="list-style-type: none"> Plan zaharretako Practicumak eginak izatea <p>(egokitzapenak: ikusi beheko 1. oharra)</p>	<ul style="list-style-type: none"> Practicumari dagokion denboraldian Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan lanaldi osoko arduraldian jarduten bada
<p>practicum II</p>	<ul style="list-style-type: none"> Irakasle Eskolako ikasketetan 	<ul style="list-style-type: none"> Plan zaharretako 	<ul style="list-style-type: none"> Praktikei dagokien denboraldian

	Diplomatua bada	Practicumak eginak izatea (egokitzapenak: ikusi beheko 1. oharra)	ikasleak lanaldi osoz lan egiten badu matrikulatuta dagoen titulazioan
practicum III			<ul style="list-style-type: none"> Praktika-denboraldian Irakasleen Eskolak hautatutako ikastetxe batean lanean aritza ikasten ari den titulazioaren eta, hala dagokionean, minoraren alorrean, aipatutako Practicum egiteko. Edonola ere, ikasleak irakasgaiari dagozkion gainerako baldintzak bete beharko ditu

1. oharra: Plan zaharretako Practicumak (osoa) berriekin baliozkotuko dira, honako modu honetan:

- **Lehen Hezkuntzako gradu** berria Lehen Hezkuntza, Gorputz Hezkuntza, Hezkuntza Berezia, Hezkuntza Atzerriko Hezkuntzan eta Musika Hezkuntza espezialitateak egin dituzten ikasleentzat
- **Haur Hezkuntzako gradu** berria Haur Hezkuntzako espezialitatea egin dutenentzat.

2. oharra: Oharra oso garrantzitsua: EGONALDIAK BAKARRIK baliozkotzen diren kasuetan, ikasleak Practicumeko **memoria egitera behartuta daude**, baita irakasgaiak eskatzen dituen bilera, **tutoretza** eta abar egitera ere.

5. KASU BEREZIAK: LANALDI ERDIA, DATA ALDAKETAK...

Kasu berezien babespean dauden pertsona guztiek Practicum bakoitzerako zehaztutako epeetan eta kasuan kasuko dokumentazio guztia aurkeztuta izapidetu beharko dituzte eskaerak (kasu berezietako inprimakia).

Onartutakoen kasuan, batzordeak hala ebatziz gero, interesatuak bere ikastetxe-esleipena izapidetuko du, AUTOPRACTICUMen bidez, ebazpena jaso eta hurrengo bi asteetan.

Egutegi akademikoan aldaketa eragiten duten eta beste irakasgai batzuei eragiten dieten kasu berezietarako eskaera guztietan, erantzukizun osoa ikaslearena izango da. Practicumeko irakasgaietan arreta berezia eskatzeko eskubidea edukitzeak ez du esan nahi gainerako irakasgaietan arreta berezia izan behar duenik.

5.1. Eskaera bereziaren prozedura

1. Practicumeko araudia aztertu eta ikusi zure profilari egokitzen zaion kasu berezirik dagoen bertan.
2. Hala badagokizu, kasu berezi horretarako eskaintzen diren aukeren artean erabaki eta eskaera zehatza pentsatu.
3. Web orriko eskaera berezietako inprimakia bete. Inprimakia gure web orriko Practicum atalaren behean dagoen inprimakiak atalaren barruan daukazu.
4. Eskaera berezia arrazoitzen duten agiriak bildu.
5. Inprimakia beteta, eta agiriez lagunduta, 1.3 bulegoan entregatu, kronograman jarritako eskaera berezietarako epeetan.
6. Praktika Batzordearen ebazpena jasoko duzu zure ikasle emailean.
7. Ebazpena kontrakoa bada, practicum arrunta egin beharko duzu.
8. Ebazpena aldekoa bada, lehenengo eta behin, esleitu zaizun ikastetxean abisatu beharko duzu zure egoera zein den. Egoera bereziaren baldintzak onartzen baldin baditu esleipena mantenduko da. Ikastetxeak baldintza berezi hauetan onartzen ez bazaituzte, beste ikastetxe bat bilatu beharko da.
9. Eskaera berezia onartua ez duen orok ez du inolako eskubiderik izango praktikaldiko baldintza orokorrak ez betetzeko.

5.2. Egonaldiaren datak aldatzea

Arau orokor gisa, Practicum enborreko irakasgai bat da, eta, beraz, errespetatu beharreko **ordutegi bat dauka zehaztuta**.

Data aldaketa kasu berezi eta justifikatuetan bakarrik aztertuko da, eta dagokion dokumentazioa aurkeztuta (istripua, gaixotasuna, amatasuna, mugikortasun-programa batean parte hartzea -**ERASMUS, SICUE...**-).

Prozedura: batzorde batek data-aldaketan eskaerak aztertuko ditu.

OHARRAK:

- Karrera amaitzeko 3 irakasgai edo gutxiago falta zaizkien eta Practicum IIIa lehenengo lauhilekoan egin nahi duten ikasleek ezohiko epe bat izango dute, eta epe hori irailaren amaieran zabaldu eta abendu amaieran amaituko da (12 aste). Epe horiek ezingo dira ez aurreratu, ez atzeratu.
- Bere egoera frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.
- Data-aldaketa **EZ** da baimen bat izango matrikulatuta egon litekeen beste irakasgai batzuetara huts egiteko.

5.3. Egonaldia Lanaldi erdiko praktikan egitea.

Ezohiko kasuetan eta dokumentazio egokiarekin justifikatuta (lan- edo kontziliazio-arrazoiak), ikasleak ikastetxean egonaldia lanaldi erdiz egitea eskatu ahalko du.

Egonaldia honako modu honetan luzatuko da:

IRAKASGAIA	EGONALDIA	ASTE KOPURUA
Practicum I	Goizez	10
Practicum II	Goizez	14
Practicum III	Goizez	24

- Practicumari dagokion praktika-egonaldia lanaldi erdiz egiteko, izaera orokorrarekin onartutako datan hasi beharko da.
- Kasu guztietan, praktiken denboraldia laburtu ahalko da, goizei arratsalde batzuk gehituta.
- Ez dira astean 15 ordu baino gutxiagoko praktikak onartuko.
Ordutegi hori modu ordenatu eta logikoan antolatuko da, antolaketa- eta pedagogia-ikuspuntutik.
- Hasiera data practicumaren bera izango da
- Gutxienez bi goiz egin behar dira.

5.4. Bi practicum Ikasturte berean egiteko aukera

Bi Practicum ikasturte berean egin daitezke, ez delako aurre-baldintzarik eskatzen.

- Aurretiko jakinarazpena epe barruan: kasu horretan, ikasleak adierazitako epean jakinarazi beharko du, eta egonaldia ohiko epeetan egingo du, praktiketako ikastetxean.

OHARRA: Aukera hau hartzen dutenek jakin behar dute bi praktika-denboraldi ikasturte berean egiteko aukera emateak EZ duela inolaz ere baimenik ematen, matrikulatuta dagoen beste irakasgai edo ikastaro batzuetara hutsik egiteko.

5.5. Praktiketako ikastetxea aldatzea

Ikasleek adierazitako praktiketako ikastetxean egingo dute egonaldia.

- **Ezohiko izaera** duten kasuetan bakarrik, eta dagokion dokumentazioarekin justifikatuta, ikastetxez aldatzeko eskatu ahalko dute
- **Prozedura:** eskaera inprimaki normalizatu baten bidez egingo da (esteka). Bertan, eskaera egiteko arrazoiak eta horiek abalatzeko dokumentazioa zehaztuko dira.

6. Ikastetxeko egonaldiaren notaren baliozkotasuna

Praktiketako egonaldia bakarrik gaindituz gero, nota ez da hurrengo ikasturteetarako gordeko; hau da, matrikulatu eta praktiketako egonaldia berriro egin behar du.

Salbuespenak: dokumentazioarekin justifikatutako kausa larriengatik praktiketako egonaldia urtebetez luzatzeko eskatu ahal izango da; horretarako, ordea, nahitaezkoa izango da berriro matrikulatzea.

Praktiketako ikastetxean EGONALDIA BAKARRIK BALIOZKOTZEN den kasuetan, luzapen hori eskatu den ikasturterako bakarrik izango da baliozkoa. Salbuespeneko ikasle batek memoria egin ezean edo gainditu ezean, hurrengo ikasturtean, egonaldia egin beharko du praktiketako ikastetxean, edo hala badagokio, salbuespen berri bat eskatu beharko du.

7. EBALUAZIOA

Azken kalifikazioa honako balioespen hauen batez bestekotik aterako da:

- Ikastetxeko tutorearen ebaluazioa: %30
- Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakasle-tutorearen ebaluazioa: %70

Tutore bakoitzak praktiketako ikaslearen errendimendua kalifikatu beharko du, Otik 10era bitarteko kalifikazioarekin.

Horrez gain, honako aldaera hauek kontuan hartzea komeni da:

- Azken nota eskuratzeko batez bestekoa egin aurretik, beharrezkoa da alde bakoitza gaindituta izatea, gutxienez, 5eko notarekin.
- Praktiketako egonaldia gaindituz gero, baina praktiketako azken memoria aurkeztu ezean, ohiko deialdiko azken nota "ez aurkeztua" izango da. Gauza bera ezohiko deialdirako; berriro memoria aurkeztu eta gainditzeko den kasuetan salbu.
- Praktiketako egonaldia bakarrik gainditzeko bada, nota ez da hurrengo ikasturteetarako gordeko. Kasu horretan, beharrezkoa litzateke berriro matrikula egitea eta praktiketako egonaldia egitea (ikus kasu berezietarako araudia).
- Praktiketako egonaldia gainditu ezean, ohiko deialdiko nota "gutxi" izango da, eta ezohiko deialdian, berriz, "ez aurkeztua".

Ikasleek praktiketako memoria irakasle-ikasketetako titulua egiten duten hizkuntzan aurkeztu beharko dute; betiere, aurkakoa zehazten ez bada (esaterako, Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa minorra).

Bestalde, bertaratzeari dagokionean, baldintza hauek hertsiki eskatuko dira:

Ikastetxeko ordu guztietan bertaratzea. Arrazoitu gabe hiru goiz edo arratsalde huts egitea nahikoa izango da egonaldian EZ NAHIKOA jartzeko.

Irakasleen Unibertsitate Eskolako tutoreak antolatutako bilera eta bestelako bertaratzeetan %80an parte hartzea ere ezinbestekoa izango da. Dena den, huts egite bakoitzak puntu 1 kenduko dio azkeneko emaitzari.

Ikasleak kontuan izan behar du Practicum IIIan ikastetxe aldaketarik egiten ez badu (hiru Practicumetan gutxienez bi ikastetxetan aritzea eskatuko zaio), azken Practicum IIIa BALIOGABETUKO ZAIOLA.

8. PARTE HARTZEN DUTEN AGENTEEN FUNTZIOAK

Praktika-denboraldia Irakasleen Eskolako irakasle-tutore batek eta praktikak garatzen diren ikastetxeko tutore batek zuzenduko dituzte.

Ikastetxeko tutorea eta Irakasleen Eskolako tutorea euren artean koordinatu beharko dira, praktiketan dagoen ikaslearen prestakuntza-beharrak egokitzeko eta adosteko.

Irakasle-tutoreak ezingo du praktiketan dagoen ikaslearekin familia-loturarik eduki.

8.1.- Ikastetxeko koordinatzailea

Practicumeko koordinatzailea ikasleak ikastetxean egin beharreko prestakuntza-jarduerak koordinatzeaz eta unibertsitatearekin harremanetan egoteaz arduratuko da.

Ikastegiko zuzendariak, bertako ordezkari nagusi gisa, koordinatzailea eta irakasle-tutoreak izendatuko ditu. Horiek Practicumeko ikaslearen zuzeneko erreferentzia izango dira ikastetxean. Izendapen hori Practicumeko ikaslearen koordinazio- eta tutore-lanak egiteko eskatzen duten irakaslearen artean egingo da, gehienbat.

Funtzioak:

- Practicumeko ikasleei ikastetxean egonaldia erraztea eta beharrezko informazioa ematea.
- Unibertsitatearekiko harremanetan ikastetxeko erreferentzia-pertsona izatea, eta bi erakundearen artean lana koordinatzeko Practicumeko unibertsitate-arduradunekin lankidetzan jardutea.
- Practicumeko ikaslearen prestakuntza-prozesuan irakasle-tutore bakoitzaren eginkizuna zehaztea.
- Practicumeko ikaslearen toki eta ordutegiak antolatzea.
- Practicumeko ikaslearen irakasle-tutoreekin egin beharreko bileren egutegia prestatzea.
- Praktiken hasiera-prozesuan Practicumeko ikasleak hartzea eta eurei laguntzea.
- Practicumeko ikasleei Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, kudeaketa eta antolaketa azaltzea, eta beharrezko dokumentuak ematea. Ikastetxearen gizarte- eta hezkuntza-testuingurua azaltzea.
- Ikastetxearen erakunde-bizitzan Practicumeko ikaslearen partaidetza erraztea: klaustroan, sailetan, tutoretzetan...

8.2. Ikastetxeko tutorea

- Ikastetxeko Practicumeko koordinatzailearekin eta unibertsitateko arduradunekin lankidetzan jardutea, bi erakundearen arteko lana koordinatzeko.
- Ikasturtean zehar ezarritako denboraldietan, praktiketako ikasleak hartzea. Praktiketako ikasleei taldearen edo eskola-unitatearen ezaugarrien, Curriculum

Proiektuaren eta hori talde edo eskola-unitatearen testuinguruan kokatzearen gainean orientatzea.

- Practicumean zehar, ikasleari laguntzea, eta bertan egin beharreko eginkizunetan, autonomia eta erantzukizunaren zentzua ematea.
- Tutoretzen duen Practicumeko ikasleak egin beharreko prestakuntza-ekintza orokorrak ikuskatzea.
- Gainerako irakasleekiko koordinazio-lanetan, eta ahal den neurrian, familiekiko harremanetan, praktiketako ikasleen partaidetza babestea eta sustatzea.
- Practicumaren Plan Orokorrean, ikasleek garatu beharreko berriazko prestakuntza-ekintzak proposatzea.
- Practicumeko prestakuntza-prozesua ebaluatzea, eta ikasleari bere indargune eta ahulguneen berri ematea, horiek hobe ditzan.
- Ikastetxeak prestakuntza-ekintzetarako dituen baliabideak Practicumeko ikaslearen esku jartzea.
- Practicumeko ikasleen gaitasunak ebaluatzeko azken txostena egitea.
- Eskolako Praktiketako tutoreari eta ikastetxeko koordinatzaileari
- Practicumaren garapenean gerta daitezkeen gorabeheren berri ematea.
- Practicuma hobetzeko egokiak iruditzen zaizkion iradokizun eta ekarpenak egitea.

8.3. Irakasleen Eskolako Praktiketako tutorea

Practicumaren tutoretzak honako hauek hartzen ditu barne:

- Talde batez arduratzea, eta Practicuma irakasle-ikasketetako enborreko irakasgaia denez, bere irakaskuntzari erantzutea.
- Practicumeko Zuzendariordetzak eta Tituluko Koordinatzaileak deitutako bileretara joatea.
- Ikasgeletan jarduteko irakaskuntza-denboraldi garrantzitsu honetan, ikaslea orientatzea, teoriaren eta praktikaren arteko lotura argi ikus dezan.
- Planteamendu teorikoei jarraipena ematen saiatzea, horiek ikasgeletan aplikatzeko, irakasle/tutorearen lankidetzarekin.
- Behaketa-denboraldian planteatzen daitezkeen arazoak taldean konpontzeko praktiketako ikasleekin bilerak antolatzea, ingurunearen ikerketan egindako lana aztertzea, zikloa antolatzea, gelak antolatzea, etab.
- Ikasleei Practicumaren programa ematea.
- Esleitutako praktiketako ikasleei arreta eskaintzea eta laguntzea, ikastetxean beren lana zuzentzea eta beharrezko orientazioak ematea.
- Ikastetxeetako zuzendari edo koordinatzaileekin eta praktiketako tutorearekin harremanetan egotea.
- Praktiketako denboraldia hasi aurretik, mintegien egutegia zehaztea.
- Praktiketako Memoriaren prestaketan ikaslea orientatzea, eta zehaztutako orientazioen arabera, hori balioestea eta kalifikatzea.
- Ikasleak egindako lanak, aitortutako zentroko maisu-maistra tutore bakoitzak egindako ebaluaketa eta praktiken jarraipenean egindako behaketak kontuan izanik, Practicum-aldia kalifikatzea.
- Practicuma hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.

8.4. Ikasleak

- Esleitutako plazari dagozkion datuak egiaztatzea.
- Practicumaren faseak ezagutzea eta horietan parte hartzea (informazio-bilerak, plazen banaketa, memoriaren aurkezpena...), eta bere betetzean kolaboratzea.
- Mintegietara joatea eta horietan parte hartzea.
- Bertaratze-baldintzak eta ikastetxeko puntualtasuna betetzea, eta bere araudia betetzea.
- Ikastetxeko tutorearekin eta Irakasleen Eskolako tutorearekin kolaboratzea.
- Practicumaren programa eta bere garapena ezagutzea.
- Hezkuntza-komunitateko agente guztiekin adeitasunezko harremana edukitzea.
- Unibertsitateko tutoreak zehaztutako ildoei jarraiki, banakako memoria bat lantzea.